**ERREPORTAJEA** BASATXERRIAK SAN LORENTZON **GEHIGARRIA** HASIER ETXEBERRIARI ELKARRIZKETA
**BERBETAN** ASIER ZENGOTITA BATASUNAKO ZINEGOTZIA

# BARRen

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002eko uztailaren 5a/X. urtea/412. zkia




# Larrean libre hazitako txerrien okela

"Guk txarriak gizendu eta hark jan" (Esaera zaharra)




MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA



San Roke Auzoa,
20870 Elgoibar
Tel. 943 74 41 32
Faxa. 943 74 41 53
ingenieria@fmh.es
www.fmh.es

cesi

AENOR

Euskadi

**2002/2003 IKASTURTEA**

Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen dizu:

## TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA

et. Enpresarekin elkarlanean garatutako lanbide proiektua.
Lan-kontratua prestakuntzaren lehen egunetik.
Emaitza erakargarriak: gehiengoa lanean dihardu,
eta %25ek zuzendaritzako ardurak hartu ditu.

[redacted]

+ UZTAILAREN 10ean, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko:

18.30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko ditugu eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

[redacted]

+ UZTAILAREN 24ra arte matrikulazio epea zabalik.



## Sabotaje Mundiala

Ez dakit zein izan ziren Karakateko antena izorratzearen arrazoiak, baina dirudienez, Futbol Mundialeko finala ez ikustea zen erasotzaileen helburua. Futbolzale ugari izorratu zuten, baina telebista futhola baino askoz gehiago da. Ez ziren gogoratu zenbat jende dagoen etxetik atera ezinda, edo ospitalean, edo bakardadean, bere entretenimendu eta konpainia bakarra telebista izanik. Igandeak nahiko tristeak izaten dira berez, baina telebistarik gabe tristeagoa bihurtu zen askorentzat joan zen igandea. Hala ere, bada egoera honi probetxua atera zionik, bideo kluba eta zinema esate baterako, eguraldiak ere, ez baitzuen gehiegi laguntzen. Ekintza honen atzean, helburu pofitikoak egongo dira seguruenik. Hala eta guztiz ere, ez dut ulertzen Karakateko antena izorratuz zer lortuko duten. Elgoibar eta inguruko jendea amorraraztea bakarrik, besterik ez. Brasildarrek sekulako golak sartzen zituzten bitartean, elgoibartarrek Estatuko irrati emisorak entzunez imaginatu behar zuten partidua, benako irratiak ere, ezin baitziren entzun. Aholku bat: hurrengoan Madrilgo antena erre dezatela, eta orduan bai izango dela sabotaje mundiala.

Ainhoa Andonegi



## Denok ikusten dugun telebista

Gaur egungo telebistak duen programazioa bat ere interesgarria ez dela askotan entzuten da, baina azkenean, askok egunero ikusten dugu zerbait. Baina askotan ez da interesgania ala ez eztabaidatzea, baizik eta interes falta hori zerk sortzen duen.

Ez dakit zein diren programazioen arduradunak baina hauek programa bat egiteko jarraitu behar duten baldintzak oso garbi daude: oso gazteentzako zuzendua, euren arteko elkar erlazioak kitzikatu, txorradak esan ditzatela, eta noizean behin tontakeriak egin denek barre egiteko eta badugu programa eder bat. Orain dela urte asko kulebroiak izan ziren eta denok negarrez bukatu genuen kontatzen ziren istorio tristeekin. Edota azken urte honetako programen helburua: famatuak izatea (eta ez abeslariak, aktore, edo artista izatea) eguna bukatu baino lehen. Eta okerrena, jende multzoa zoratu eta protagonistak goraipatu egiten dituzte jainkoak bailitzan.

Nora helduko garen ez dakigu, mundu hau egun batetik bestera hankaz gora ager daiteke, baina telebistak hau ikusirik, ez dut uste aldaketa handirik jasango duenik. Eta ez dot telebista kultural, independente eta antikontsumista izatea izan behar denik, ze telebista, bere formatua edukirik entretenimendu interesgarria izan daiteke, ziztrina bihurtu barik.

Baina azken finean, diruak agintzen duenez, horrek jartzen dituen baldintzei kaso egin beharko zaio.

Jokin Martinez

Kexak ........................................................ 5
MOtZ MOLZ ................................................ 8
gehigarria ................................................ 13
kiRolAk ........................................................................................
aGenda ................................................ 24

ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO

Nahaste Borrasteren 18. edizioa pasatu berri den honetan eskerrak luzatu nahi dizkiegu berau antolatzen Iagundu gaituzten guztiei: bazkide, laguntzalle, Udaltzain eta Udala, Eskerrak eta zorionak parte hartu duten kirolariei, beraiek altxatu dutelako 18. edizio hau eta sekulako giroa jarri dutelako herriko kaleetan zehar beraien ahalegina dela medio. Eta azkenik, eskerrak eta zorionak baita ere Elgoibarko herriari kaleak bete zituelako kirolariak animatzen eta kirol jarduna gogo onez errespetatu zuelako. Aurten 21 kirolari izan baldin bada, ea hurrengo urtean askoz gehiago izatea lortzen dugun. Hala bedi!

Kimetz Elkartea

ozhdolu hauek artzeo izen-abizenok, NAN releknozica

# Urruzunoren begi ezkutua

## Etxeko leihotik izarren konkistan



Zoriontasuna galtzeko beldurrez egiten diogu uko zorion berriak aurkitzeari. Noraino iristen diren koldarkeriaren naugak! Izan ere, nor dago ziur orain daukana eduki dezakeen onena denaz?

Ea, ziur zaude zure etxeko leihotik ikus ditzakezun izarrak direla distiratsuenak? Agian parean duzun mendi horrek eragozten dizu zeru berrien konkista.., edo agian ez, agian ez. Eta ziur zaude maite duzun horren irribarrea_baino ederragorik ez dela? Agian irribarre horrek hainbeste lausotzen dizu begirada ze ez zaren konturatu ere egiten albotik beste norbait irribarre egiten ari zaizunik... edo agian ez, agian ez.

Baina hain da Ian zaila mendiak beren lekutik mugitzea...hain nekeza irribarreen sorginkeriak saihestea...

Atzo gauean prestatu nuen udako nire plana: "Izar, mendi eta irribarreak motxilan sartu eta izar gehiagoren bila abiatuko naiz!". Latza plana. Eta beno abiatuko naiz... Noiz?, Lasai, lasai, ez apuratu, izar guztien distira neurtutakoan..., irribarreak ondo kalibratutakoan..., mendiak ummetik ongi aztertutakoan... Ez nuke lehendik dudanaren balioa gutxietsi nahi!

Dena den, opor zoriontsuak denoi!

I:xue Alberdi

ASTEKARIA

**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20370 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
zr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barten@lopaguneacom
Helbide intomiatikoa:
www.topagunea.comlbarren
ARGRARATZAILEA
Elgmbarko Izarra

LAGUNTZAILEA ElgOibarkolJdala KDOEMATZALEA Atnhaa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea KhzEraez Irati Agirreazaldegi, PUBLIWATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA ker Diego ADMINISTRAZIOA Amaia Rodrigez GEREKRIA Jon Peh Uriguen KOLABORATIAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Puente. Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Ahnerto Ansuategi, Edume Bilbao. Golzon Amela. Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martnez, Monlse Arregi, Juando Gorostiza.
Ainhoa Andonegr Kokoe K.E. eta UrruzunoL.T.
AZALEKO ESAEIIA ZAHARRA Gotzon Garateren libUruhk
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4 025 ale LEGE GORDAILUA 5S-1.038/92 ISSN 1139-1855

rti

EIGOIBARK012ARRA
IRLIUI 1.1.1Al7n

*Elgoibarko Udalak, Easko laurlaritzako Kultura Sailak*
ela *Farn Aldandiak diraz laginuirtraka oldizkaria.*

kutxa

1DANOBAT
IA10Olx" IIERHamiEVA

fr GOITI
GRUPO DANC11120

EITARTA

**OHARRA:**

Datorren asteko BARREN (uztailak 12) opor aurreko azkena izango da. Jaietako ale berezia prestatzen hasiko gara eta San Bartolome jaien bezperan, abuztuan 23an, kaleratuko dugu.

r

**Iriondo** TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2- Tel: 943 74 00 15

**OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitugabdei bertakook segituan igogailua

943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 82
indalezio Ojanguren 2, behea **20600 EIBAR**

## 1(5-11111AIX



• Herritar batek ondorengo kexa hau bidali digu, erretratu eta guzti: **San Roke kalean, Institutu pareko aldapan, kotxe eta kamioiak gaizki aparkatuta egoten dira.** Lurreko geziak borratuta dauden arren, bide hori zentzu bikoitzekoa da, beraz, ez da bidezkoa kotxeak karril horietako batean aparkatzea. Istripu bat gertatuz gero, errua norena izango litzateke? Gaizki aparkatuta dauden kotxeena edo Udalarena bertan aparkatzea utzi duelako? Beste herritar batek jakinarazi digunez, aldapa honetan bertan, **errebueltan zabor kontenedoreak daude, eta maniobra ugari egin behar dira kotxearekin.** Metro batzuk mugitzearekin arazoa erraz konpondu daitekeela gaineratu digu.



• Herritar batek **Mendaroko hirigintza plana dela eta, herria berdegune, zelai eta parkerik gabe geratzen ari da.** Santa Anako parkeak benetan itxura negargarria dauka. beraz, dagokionari berdegune apurrak apaintzeaz arduratzea gustatuko Iitzaidake.

• Gazte bat etorri zaigu **komun publikoak itxita egoten direla kexatzeko,** eta bere kasua jarri digu adibide modura: Larunbatean goizeko 4:45ean sagardotegitik bueltan, taberna guztiak itxita zeudenez, komun publikoetara joan zen, eta hauek ere itxita aurkitu zituen. Komunetako atean egin zuen pixa, eta 6tik 30 eurotara bitarteko multa jarri diote. Udaltzainek errekara egin zezala esan zioten, baina bere ustez, delitua berdina da. Gainera, larunbatetan kalean jende askok pixa egiten duela adierazi digu, eta multa denei jarri beharko litzaiekeela.

## 111120111

• Elgoibarko Ikastola osoak eta bereziki batxilergoko irakasle taldeak, Ikastolako batxilergoko 2. mailako ikasleak zoriondu nahi ditu kurtsoan zehar eta selektibitatean izandako emanzengatik eta beraiengan jarritako konfidantzarengatik. Era berean, etorkizunean onena opa diete. Zorionak eta ondo ibili!



# larrean libre has

*Txerrizaleok Elkartea txerriak lĺbre, larrean hazten dituzten baserritarrez osatuta dago. 16 lagunek osatzen dute elkartea, tartean Asier Rubio elgoibartorrak. Asierrek Fraisoro Nekazal Eskolan egin zituen ikasketak eta gaur egun 100 txerri hazten ditu San Iorentzoko Ahozar baserriko lurretan. Urbasan izan ezik, inguruotan ez gaude txerriak libre ikustera ohituta eta Karakateko baso eta zelaietan gora eta behera dabiltzan txerriak ikustea arraroa egiten da.*

**sier** Rubiok azaldu digunez, duela urtebete sortu zen Txerrizaleok Elkartea, baina proiektua orain dela 3 urte jarri zen martxan. "Frantzian txarrixak librian haztiak dirua ematen zabala eta baserritxarrentzako beste bide bat zala ikusitxa, estudixuak eta pruebak eitxen hasi zian; arraza diferentiak aztertzen, terreno egokixak bilatzen, e.a". Ondoren, Mendi Nekazaritzak bekadun bat hartu zuen proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko. "Bekarixua interesa zakan jende eta baserritxarrekin bildu zan eta prest geunden 16 lagun juntau ginan. Euskal Labelak gama zabala zakala ikusi genduan, baina baitxa txarrikixetan txarri industriala bakarrik zauala ere. Baserrixetan txarrixak hasten ditxuen baserritxarrak despreziau gabe, naturalian hazitxako txarrixetan hutsunia zauala konturau ginan",



*Bi hilabeteko biziarekin eta hogei kiloko pisuarekin ailegatzen dira txerriak eta bost hilabete ondoren, 150 kilo pisatzera iristen dira*

## 100 txerri

Txerrizaleok Elkarteko 16 kideak Euskal Autonomia Erkidegoan banatuta daude. Araban bi, bost Bizkaian eta gainontzekoak Gipuzkoan. Baserritar hauetako bakoitzak 150 txerri ditu gehienez bere ardurapean. Asierrek 100 txerri ditu. "Gehixao ez hartzeko erabakixa hartu genduan. Gure asmua ez da txarrixak haziz bizimodua ataratzia, baserriko bizimoduan konplemento edo gehigarri bat izatia baizik".

## 100 kilo 5 hilabetetan

Jaio eta bi hilabetera ekartzen dituzte txerriak eta 7 hilabeterekin eramaten dituzte hiltegira. Batez beste 20 kiloko pisuarekin ailegatzen dira txerriak eta 150 kilo pisatzera iristen dira 5 hilabetetan, nahiz eta txerri batetik bestera aldea egoten den. Urtean bi txerri talde hazten ditu, 200 txerri guztira. "Txanda batetik bestera bi hilabeteko etenaldixa eitxen dogu, batez ere, instalazivak garbitxu eta desinfektatzeko". Bestalde, txerriak hazteko leku aproposa bilatzeak berebiziko garrantzia duela aipatu digu: "Txarrixentzat baino gehixao inguruniantzako oso inportantia da leku aproposa topatzia. Basuak hobeto aguantatzen ditxu txarrixen triskantzak. Euri asko eitxen daban zelaixetan, berriz, segitxuan eitxen da lokatza". Euskal Herria inenditsua eta malkartsua denez, ingurunera egokitzen zen txeni arraza egokia bilatu behar izan zutela ere aipatu digu.

**"Gure asmua ez da txarrixak haziz bizimodua ataralAk konplemento bat izatia baizik"** Asier Rubio

# itako txeMen okela

## Arraza berri bat

"Txarri industrial bat hemen ipiniz gero segitxuan hartuko litxuzke gaixotasunak eta euren gorputzak ez dia hemengo aldapetan ibiltzeko modukuak". Beraz, hemengo baldintzetara moldatzeko gai zen txerri mota berri bat sortu behar izan dute. Hiru txerri arrazaren nahasketaren emairza da lortu duten txerri berria. Bat Durok arraza da. Izaera rustikoa ematen dio arraza honek, aire librean moldatzeko gaitasuna, alegia. Bigarren atraza batek gorputzaren luzetasuna ematen dio. "Zenbat eta luziau txuleta eta solomo gehixao ataratzen dia". Hirugarren arrazak okelari kalitatea ematen dio. "Txarri batzuk, euskal txarrixak esaterako, oso koipetsuak dia, beste batzuk, berriz, grasa gutxi eta okela askokuak izaten dia. Guk grasa puntu bat dakenak, baina okela askokuak aukeratu ditxugu. 'Pata negra'-k txarri iberikuak dia eta Durek arrazako txarrixek badake 'pata negra' arrazako txarrixen kruzia".

**Hiru txerri arrazaren nabasketaren emailza da lortu duten txerri berria.**



*Asier Rubiok 100 txerri hazten ditu San Lorentzoko baserri batean*



## Euskal arraza

Alludes-en, Nafarroan, Euskal txerrien granjarik inportanteena dago. Euskal arrazetatik desagertzeko aniskuan geratzen den bakarra da. Durok arrazako txerriaren ordez, Euskal txerriaren kruze bat sartzea aztertzen ari direla aipatu digu Asierrek: "Euskal arrazako txarrixak akats bat daka, ordia, jaten dabena okela bihurtzeko asko jan bihar dabe. Kilo bat irabazteko, adibidez, 6 kilo pentsu jan bihar dabe. Guk ditxugun txarrixek, berriz, erdixa janda nahikua dake eta txarri industrialek bi kilo janda bat irabazten dabe. Horretaz gain, koipe askoko okelia dake eta gaur egun jendiak koipia ez dau ikusi ere ein nahi".

### Zer jaten dute?

Txerri hauek erabat era naturalean daude elikatuak: belar, ezkur, gaztaina, sasi, garo...hautaz gain, artoa, babak eta soja ere bada beraien elikaduraren osagarria. Elikadura honek eta txerriak bere kasa aire librean ibiltzeak okelari beste "toke" zapore bat ematen dio.

### Zein da zure lana?

"Behin gauzak ondo montatuz gero, ez dabe edikazio askorik bihar. Nere lana atento egotia da, jateko tokixan ingurua basaz garbi eukitzia, txukun. eta jateko pixka bat ematia. Tolbara [redacted]ektauta dakagu jana eta jan ahala jauzten da [redacted]tsua. Lo eitxen daben lekua ere garbi Inanten- [redacted]bihar da.

### Uste dugun bezain zikinak al dira?

"Keba, ondo fijatu ezkero ez daude oso zikinak. Ez da jendiak pentsatzen daban moduan lo eta jaten daben tokixan kaka eitxen dabela. Horretarako bere lekuak ditxue. Basia asko gustatzen jakue. baina azala zaintzeko erremedixo moduan erabiltzen dabela iruditzen jata. Ardixek artilia daken moduan txarrixek ez dake apenas azala bahesteko ilerik-eta. Hipopotamo eta elefaniek ere antzera eitxen dabe berotik eta eltxoetatik babesteko".

### Non aurkitu daiteke zuek hazitako txerrien okela?

"Batez ere, eta momenntz, ]abela daken karnizerixetan. Elgoiharren ez dao arazorik. Basatxerri txarrixak eskatziakin nahikoa da. Txerrizaleok Elkarteak hazten ditxuan txarrixetatik lortu eta, freskuan nahiz landuta, saltzera ataratzen ditxuen txarrikixen ezaugarri komertziala da Basatxerri. txarrixaren dana saldu edo aprobetxatzen dabe. Freskuan zatitxu: txuletak, solomuak, sahietsak, hirugian̄a. Basatxerri landuak: urdaiazpiko egosixa, paleta egosixa eta basurde hurua. Bestalde, elkarte barruan badakagu eztabaida bat nori eta non saldu. Batzuk hemen produzitzen danez hemen saltzian aldekuak gera.

Astero 50 txerri hiltzen ditxugu elkartian. Hola dakagu programauta produkziva, txandatuz. Produkzio txikixa dala iruditzen jata eta kamizerixetan bakarrik saldu biharko litzatekeela beitxantzen jata.

## 7 gazte eigomartar salmonellaz gaixotuta

Egoera txarrean zeuden tortila bokata batzuk jan ondoren, salmonellaz gaixotu dira 7 gazte elgoibartar. I.C., 1.A, N.A., M.T. eta A.I. Beraietako batek adierazi digunez, "zapatu gabian Eibarko Maixa tabernan jan genduzen tortilla bokadilloek ein ziguten kalte. Danok egon gera gaixorik, baina hiru okerrao. Hurrengo goizian Mendaroko Ospitalera jun zian eta ingresauta egon dia bi lagun egun batzuetan. Bestiok ez dogu ingresau biharrik euki, baina suerivakin egon gera, ezin ezer janda. Bost kiIotik gora galdu dogu batzuk. Gainera, ospitxalian, gure egoera berdinian zauan elgoibartar bat aurkitxu gendun. Pintxo bat jatiak ein ziola kalte esan zigun. Nere lagun bati, berriz, nere bokadiluari emandako hozkada batek".

## Xiberuaren aldeko kanpainapen zozketan ez da irabazlerik azaldu

Xiberuari laguntzeko dirua bildu asmoz zozketa egin zuten Elgoibarren. Saria Xiberuako aterpetxe batean asteburu bat pasatzea zen, baina zozketa bi aldiz egin ostean irabazlerik azaldu ez denez hutsik geratu da. Beraz, Elgoibarko batzordeak dirua Xiberuaren alde ematea erabaki du. Bestalde, ekainaren 28an izandako marisko otarraren zozketa Mikel Osoro elgoibartarrari tokatu zaio.

# Treneko txartelak hartzeko eta hauek "pikatzeko" makinak ipini dituzte Toletxegaingo geltokian

### Urritik aurrera bidaia bonoak erosi ahal izango dira automatikoki




Toletxegainko tren geltokian trena hartzeko ohitura duten elgoibartarrek berrikuntzak somatuko zituzten azken aldian bertan. Izan ere, treneko txartela modu automatikoan hartzeko makina ipini dute Toletxegainen, baita bileteak indargabetzeko bi makina ere. Makinek, beraz, treneko txartel-zulatzaileek betetzen zuen papera egingo dute. Ermua eta Usurbil arteko geltokiak falta ziren sistema hau jartzeko eta piskanaka ipintzen ari dira. Elgoibarren, jadanik martxan dago eta urriaren amaieran 10 bidaiarako bonoak hartzeko aukera egongo da. Beraz, hemendik aurrera inor ezingo da Toletxegainetik trenera txartelik gabe sartu.

Bestalde, geltokietako markesinak berritu dituzte eta baita margotu eta bankuak ipini ere. Guztira lanek 36.980,97 euroko kostua izan dute.

# Elgoibarren etxebizitzak eraikitzeko 3 proiektu berri onartu ditu Udalak

### Santa Ana kalearen eta trenbidearen artean babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko dituzte

Udalak hirigintzako 3 proiektu berri onartu zituen azken plenoan. Honela, urte batzuren buruan herrian hainbat aldaketa izango dira. Batetik, Santa Ana kalearen eta trenbidearen arteko Iurretan etxeak eraikiko dituzte, babes ofizialeko etxebizitzak batzuk eta libreak besteak. Bestalde, Santa Klarako goiko aldean, Jausoro eta monjen konbentu artean ere etxeak egingo dituzte. Bertara joateko igogailua jartzeko eskatu zuten Udalean, baina legez sarbidea egokia denez, ez dute igogailurik ipiniko.

**Madala**

Hirugarrenik, Madalako etxeen bigarren eta hirugarren faseak egiteko proiektuak ere onartu zituzten plenoan.. Iriondo eta Txarridunako eraikinetako bizilagunek alegazioak aurkeztu dituzte, beraien etxeen atzeko aldean egingo duten etxebizitza distantzia oso laburrera baitago proiektuaren arabera. Udalak bizilagunei erantzun die, kalearen zabalera handitu daitekeela esanez. Beraz, Elgoibarren etxebizitza bloke berri asko egingo dituzte datorren urteetan. Hasierako proiektuak behintzat onartuta daude Udalean.



## Trikiti doinuz alaituta ekitaldi asko izan da Idotorbeko (San Pedroko) jaietan

Idotorbe (San Pedro) bailaran santuaren omenezko jaiak ospatu dituzte asteburuan. Trikiti doinuek girotu dituzte ekitaldi guztiak. Bazkari, afari eta luntxekin jateko aukerarik ez dute galdu auzotarrek. Horretaz gain bertso saioa, motokrosa eta idi-demak izan dira auzotarren eta inzurutik joandakoen gozamenerako. Jaiak amaitzeko zozketatu zuten karretila Berritxuko Juan Arriolak jaso zuen eta telebista 3324 zenbakia duenari egokitu zaio.






## Karakateko antenak izandako sabotajeak telehistarik gabe utzi gintuen domekan

Joan den lamnbatean, gauerdian, izandako eraso batek kalteak eragin zituen Karakateko antenan. Ondorioz, telehista seinalerik gabe utzi zituen elgoibartarrak igandean. Seinalean arazoak zirela konturatuta ertzainak eta suhiltzaileak bertaratu eta kalteak nabarmenak zirela ohartu ziren. Bi ate indarrez ireki eta gasolina bidoi bat jarri zuten barruan, gero koktel batekin su emanez. Telebista seinaleaz gain, telefono mobiletan eta irratietan ere izan zuen eraginik erasoak. Hala ere, teknikoak azkar ibili ziren eta igande iluntzerako kalterik larrienak konpondu zituzten. Ertzaintzatik adierazi digutenez, oraindik ikerketak aurrera darrai, baina ustez kale borrokarekin lotutako ekintza izan da.


# ETEen enpresa gestioan ikastaro aurreratua

**Europa Gizarte Fondoak kofinantzatua**

***Administrari profila eta Eteen administrazio-gestioan esperientzia duten emakumeei zuzendua.***

- **Iraupena:** 2002ko Urritik 2003ko otsailerarte (100 ordu)
- **Tokia:** Debegesa. Azitaingo Industrialdea, 7 EIBAR
- **Ikastaro emailea:** Elgoibarko Gestio Eskola
- **Prezioa:** doan. Ikastaroaren hasieran 150,00 euroko matrikuta kobratuko da pertsona bakoitzeko, baina gutxienez %80ko asistentzia izanda, diru kopuru hori ikastaroa amaitzean itzuli egingo da.
- **Ordutegia:** astearte eta ostegunetan, 18.30etaik 21.00etara.
- **Izen-ematea:** Debegesa. Tel. 943 820 179 - e-maila: ealonso@debegesa.com

Debegesa
Deba Beheko Garapen Eko. -rnikorako Elk,trtea
Sociedad para et Desai. )1Io EconOmice del Bajo neba

Debegesak antolatua
Europako Gizarte Fondoak kofinantziatua
Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Segurtasun Saila

Europa Gizarte Fondoa
Fondo Social Europeo

EUSKO JAURLARITZA
G 0 111 ER N 0 VASCO

## Nafar Gobernuak neurri zorrotzak hartu ditu erretzaileen kontra

# ZER IBUDITZEN ZAIZU LEU PUBLIKOETAN ERRETZEA [redacted]9



### AMAIA LARRAÑAGA

**27 urte, administraria**

Ni ez naiz erretzailea, eta ondo iruditzen zait leku batzuetan erretzea debekatzea. Eritetxeetan, adibidez, ez erretzea ondo dago, baina urduri dagoen pertsona batek erretzea behar badu, eduki behar du teku bat horretarako.



### BRIGIDA IRIONDO

**30 urte, dendaria**

Ni erretzailea naiz, beraz, gaizki iruditzen jata. Erretzen ez daben jendiak espazio libre bat bihar dau, baina guk gure eskubidiak ere defenditxu bihar ditxugu. Erretzailiok ere errespetua merezi dogu.



### ARRATE IRIONDO

**37 urte, irakaslea**

Ondo dago piskat murriztia, baina gehixegi izan gabe. Ni ere erretzailia izan naiz, eta erretzailiek euki bihar dabe bere lekua. Aukera bat da erretzia, eta errespetau ein bihar da.



### JESUS MARI AGIRREGOMEZKORTA

**53 urte, teknikaria**

Tokixaren arabera hartu bihar dia neurri hauek. Adibidez, pelota partiduetan, frontoian erretzia debekatuko balute, ez litzake inor juango, Euskal Herriko tradiziva galduko litzake.



### BENITO MARIN

**70 urte, jubilatua**

Erretzailea naiz, baina ez dutenak erretzen errespetatu egin behar dira. Leku publikoetan erretzea baino, hobe ikusten dut kalean erretzea. Leku publikoak errespetatu egin behar dira.



### EDUARDO SANTOS

**40 urte, pintorea**

Oso ondo iruditzen zait. Ez dut sekula erre, eta alboan pertsona bat erretzen egoteak sekulako traba egiten dit eta nik ez diot inori trabarik egiten. Toki guztietan debekatu beharko lukete.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETAR1K GABE!
IZENA EMATEAN `Voi OEKO BEHERAPENA
944tdi. vpip lutema apitleu teyu:64 1 6 cototeli ft,
e',4619uktar:o. 1
LARRAÑAGA
OESKOLA
Tel: 943 74 10 11

# "Alc erdien Legea euskal gizarte guztiaren kontra c

*Hiru urte daramatza Asier Zengotitak Batasunako zinegotzi karguan. Ez dira hauek Datasunarenizat unerik erosoenak, baina Asierrek adierazi digunez, "aurrera jarraitu beharra dago". Gazte-gaztetatik dabil politika munduan. 32 urte ditu, eta legealdi hau behinizot amaitu egin behar dutela adierazi digu. Gauza bat argi laga nahi du: Alderdien Lege honek, ez du Batasuna bakarrik erasotzen, "euskal abertzale guztien aurkako eraso bortitza da".*



■ Laster ilegalizatuko zaituzten errezeloa al daukazue? Legea dagoeneko onartuta dago, eta uztaila erchalderako, inartxan jartzeko asmoa daukate. Beraz, Batasuna ilegalizatuta geldituko litzateke, eta udaletxe edo instituzioetan ez dugu edukiko ezer egiteko eskubiderik, baina oraindik ez dakigu ezer seguru.

■ Batasunaren jarduna ez dela batere aldatuko esan berri du Arnaldo Otegik. Zer deritzozu? Argi daukagu gure jarduna berdina izango dela, eta, bide honetik eta ondo goazela, bestela Madrilgo Gobernutik ez lukete hainbeste lan eta aldaketa egingo gu ilegalizatzeko. Batasunak eta ezker abertzaleak oso argi dauka bere jarduera politikoaren helburua Euskal Herria beste eszenatoki batera eramatea dela, bake prozesu batera. Gu, legalak izan, ilegalak izan edo beste izen bat eduki, gure jarduera poli-tikoa ez da aldatuko aurrerantzean.

aBatasuna ilegalizatzen badute zer gertatuko da zuekin? Lege honek ekarriko dituen ondorioak ez dakigu zeint izango diren. Guk argi daukagu legealdi hau bukatu egin behar dugula, ez dakigu nola, baina bukatu egin behar dugu, eta hurrengo legealdian ere, ezker abertzale moduan aurkeztu behar gara.

■ Zein izan daitezke alderdi bat ilegalizatzeko arrazoiak? Gauza asko. Kartzelan egon den norbait ezin da zerrendetara aurkezu, HB edo EHko zinegotzi izan dena ere ez, eta terrorismoa salatzen ez duen alderdia ilegalizatu daiteke. Gauza gehiago ere badaude, baina ez dut lege guztia irakurri.

E Datorren urtean Udal Hauteskundeak izango dira. Zer gertatuko da? Ez dakigu. Legalki ate guztiak ixten ari dira, baina argi daukagu aurkeztu egin behar garela. Azken Udal Hauteskundeetan 1564 botoko poltsa lortu genuen, beraz, Elgoibarren bigarren indarra gara. Ezker Abertzaleak pisu espezifiko handia dauka, eta jende hori guztia ezin da inongo eskubide politikorik gabe gelditu, ez dauka zentzurik.

■ Zertan datza lege berri honek? Gure ustez, Euskal Herri osoaren kontrako eraso bortitza da. Zuzen-zuzenean Batasunari eragiten dio, baina azken batean, edozein prozesu independentista, abertzale edo euskaltzale guztien kontrako politika da. Pentsaera politiko bat inongo espaziorik gabe Iagatzea nahi dute, 200.000 pertsonen pentsaera.

■ Gustura al zaudete beste alderdi politikoek legearen aurrean izan duten jarrerarekin? Printzipioz EAJ, EA eta EB lege honen kontra agertu dira, eta hori guretzat positiboa da, baina oraindik asko daukate egiteko.

• Eta Gizartea ematen ari den erantzunarekin? Jende askok oraindik ez daki lege honen arrazoia, eta argi azaldu behar da herri honek beste egoera bat sekula ez ezagutzea dela honen helburua. Egoera asko luzatzen ari da, eta jendea nekatuta dago. Bakea lortzeko bidean, aldaketa politiko bat lortzeko eta Euskal Herrian benetako demokrazia eduki dezagun, Ezker Abertzaleak egin dituen proposamen guztiak Madrilgo Gobernutik erasotuak izan dira. Torturak, atxiloketak,

**"Gu legalak izan, ilegalak izan edo beste izen bat eduld gure jarduera ez da aldatuko"**

ilegalizazioa eta beste hainbat gauza izan dira euren erantzunak. Euskal Herria egoera demokratiko baten egongo balitz, eta herriak izango balu hitza eta erabakia, PP eta PSOEk ezer gutxi izango lukete Euskal Herriari eskaintzeko. Horren aurrean errazena errepresioa eta gatazka hau ahalik eta gehien Iuzatzea da, inungo alternatibarik eman gabe. Guzti honen barruan sartzen da Batasunaren ilegalizazioa, baina argi daukagu honekin ez dutela ezer lortuko.

■ Batasuna desagertzeko beldurrik? Izen horrekin desagertuko da, baina oraindik goiz da zer gertatuko den jakiteko.

## JAIOTAKOAK

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bida]i e-postaz barren@topagunea.com helbide elektronikora.

EKAINA



June Vicente Rey
Ekainak 4
Angel eta Paula



Alba Rey Migales
Ekainak 4
Angel eta Encarni



Igor Aranbarri Garcia
Ekainak 8
Eduardo eta Maria

Aroa Carril Mancebo
Ekainak 11
Angel eta Milagros

Oihane Agirrebeña Iturbe
Ekainak 14
Javier eta Nekane



Maider Zapata Toledano
Ekainak 20
Ramon eta Maria Carmen



Mikel Bergara Polanco
Ekainak 20
Alberto eta Monica



Josu Urzainki Zabala
Ekainak 21
Alfonso eta Maite



Amets eta Befiat Aierdi Mancisidor
Ekainak 1
Koldo eta Miren Jaione

## EZKONTZAK

Unai Leiaristi eta Mari Carmen Gallego
Ekainak 15
Jose Andres Agea eta Margarita Sola
Ekainak 22
Jose Ignacio San Martin eta Mari Carmen Bruno
Ekainak 1
Jonatan Aldazabal eta Maite Herrero
Ekainak 15
Maitane Cid eta Martin Dominguez
Ekainak 29

## HILDAKOAK

Abdon Martinez Pascual
87 urte, Ekainak 5
Natividad Ruano
74 urte, Ekainak 74
Mari Paz Idiaquez
83 urte, Ekainak 15
Josefa Alkorta
85 urte, Ekainak 16
Esteban Lobejon Criado
75 urte, Ekainak 16
Javier Emilio Vicente
76 urte, Ekainak 20
Agustin Prado Melon
88 urte, Ekainak 25
Pilar Ortiz
65 urte, Ekainak 26
Felix Garcia
75 urte, Ekainak 28

T2(EBERIZ17

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

*KUTXAK • TRASLADOAK .KOROAK*



NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klaraW0 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

BARREN
ASTEKARIA

# elkarrizketa

2002ko uztaila/X. urtea/412. zkia
GEHIGARRIA HILEKO ELKARRIZKETA



Hasier Etxeberria

**ATXAGA, IZAGIRRE, LERTXUNDI SAIZARBITORIA ETA SARRIONAINDIA. BOST IDAZLE ETXEBERRIAREKIN BERBETAN. GUK HASIER ETXEBERRIA BERA EKARRI DUGU GUREKIN BERBA EGITERA. BERE LIBURUAZ NAHIKOA HITZ EGIN DUELAKOAN, BESTE HAINBAT GAUZARI BURUZ EGIN DIZKIOGU GALDERAK. KAZETARIA ETA IDAZLEA. HENDAIAN BIZI DEN ELGOIBARTARRA. HASIER ETXEBERRIAREN HITZETAKO BATZUK HONA.**

## *Hasier Etxeberna*

" NIK EGINDAKO LANETAN ETA EGINGO DITUDANETAN BETI EGONGO DA PRESENTE ELGOIBAR"

*HASIER ETXEBERRIA KANALES. I957AN ELGOIBARREN JAIOA. LANBIDEZ GIDOILARI IZANA ETA HALAKO BATEAN KAZETARI BIHURTUA. BOKAZIOZ, BERRIZ, IDAZLEA. IDAZLE MODUAN SARI ASKO IRABAZIA: NOBELAKO IRUN HIRIA SARIA ETA KAZETARITZAKO RIKARDO ARREGI SARIA, ESATERAKO. TELEBISTAN ERE ASKO IBILITAKOA, KULTUR ARLOKO SAIOAK EGIN DITU BATIK BAr FARENHEIT, BABEL, EZ DAGO LARROSARIK, BETI ESKAMAK KENTZE1V... GAUR EGUN SAUTRELA LITERATUR SAIOA AURKEZTEN DIHARDU. BOST IDAZLE HASIER ETXEBERRIAREKIN BERBETAN LIBURUA KALERATTI BERRI DU. OPORRETAN DA ORAIN ETA GUK BERE ATSEDENARI MINUTU BATZUK LAPURTUTA HASIER ETXEBERRIA BERA JARRI DUGU LURRENEKIN BERBETAN.*

# Hasier Etxeberria

## "Irakurle bat bada ere han

Kazetaria ala idazlea?
Ahal banu idazle bakarrik izango nintzateke. Idaztetik bizitzea posible da, baina literaturatik bakarrik bizitzea oraingoz ez. Hala ere, estadu egokiena hori litzateke. Idazteari asko zor diot, irudimena baitaukat eta hizkuntza menperatzen baitut.


Hasier Etxeberria

**"IDAZTETIK BIZITZEA P LITERATURATIK BAK, OBAINGOi**

Nola hartu zenuen literaturarako bidea?
Etxean beti izan dugu zaletasuna, eta hortan asko zor diot aitari. Berak beti erakutsi izan dit euskal kultura mundu apasionante bezala, bizitzea merezi zuen mundurik onena bezala. Etxean txikitatik eduki ditugu euskaraz argitaratzen ziren liburu guztiak. Nik horri heldu nion eskolan ahalik eta txukunen idatziz, lehiaketatxoren bat irabaziz...

Nola uztartzen dituzu kazetari, idazle eta aita lanak?
Ez naiz maratonianoa, 100 metroko korrikalaria baizik. Karrera ongi prestatzen saiatzen naiz, eta gero lasterketa egiteko momentua aukeratzen. Gauzak ahalik eta ondoen ezkontzen ditut, baina galtzen nire aisialdia ateratzen da. Izan ere, gero eta zaletuago nago idaztearekin.



Elgoibartarra zara jaiotzez. Nolatan utzi zenuen herria?
Zoritxar hori daukat gordeta, goitik behera elgoibartarra bainaiz. Oso umetan hasi nintzen trenez Donostiara Santo Tomas Lizeora joaten ez baitzegoen euskaraz ikasteko beste lekurik. Gero Hernanin apopilo bizi izan nintzen. Ordutik lanagatik, ikasketengatik edo bizimoduak berak eraman nauelako Ieku askotan bizitzea tokatu zait,. Gaur egun Hendaian bizi naiz gainera, Elgoibarren dagoena baino argi gehiago behar dut. Horrek ez du esan nahi ez nagoela Elgoibarko kontuekin adi eta gustatzen zait noizean behin herrira bisita egitea. Izan ere, gurasoak bizi dira Elgoibarren eta joaten gara beraien peskisan.

I Hernengo garaiak nola gogoratzen dituzu?
Oso haurtzaro zoriontsua eduki nuen, ez Elgoibarren bakarrik, baita Donostian eta Hernanin eta gerora Eibarren ere, institutuan bertan ibili bainintzen. Gaztaroan bi mundutan bezala bizi

# patzeko balio izatea esi{atzen diot liburu bati"



SIBLE DA, BAINA
11111K BIZITZEA
2[11]

izan nintzen. Batetik etxean, aitarengandik jasotzen nuen mundua: euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin behan˜arena. Bestetik, koadrilan beste gauza batzuk ziren kezkak: lana bilatzea, futbola,... Ni martziano baten moduan sentitzen nintzen, baina nire lagunentzat erreferentziala. Mendiko irteeretan euskarazko kantuak erakusten nizkien, eta zubi lana egiten nuenez, gratifikatzen ninduen.

Elgoibarko bizipenak inoiz islatu al dituzu zure Ianetan?
Bai, baina ez historialariaren moduan kontatuta. Idazlearentzat bere haurtzaroa, gaztaroa eta inguruko errealitatea ogia egiteko irina dira, baina beste gauza bat da irin hori nabarmentzen den edo ez. Nik badakit non dagoen. Egindako lanetan eta egingo ditudanetan beti egongo da presente Elgoibar, oso inportantea da niretzat eta nigan daroat eta nahita ere ezingo nuke kendu.

Zenbat liburu dituzu kalean?
Dozena inguru. Ipuinak, nobelak, sukaldaritza liburuak... Lan ezberdinak egitea asko gustatzen zait. Azkena egin dudan lana oso garrantzitsua izan da, baina egin dut Kutxarentzako Gabonetarako liburu bat, baita botanikari buruzko liburu batean lagundu ere. Niri idaztea gustatzen zait, eta gehien literatura egitea.

Zer da zuretzat idaztea?
Hain artista ez garenok ere artista sentiarazten gaituen zerbait. Ni sortzailea sentitzen naiz. Adinarekin eta esperientziarekin ezaguera hartzen du batek eta gauzak gozoagoak dira. Literaturak gozamen handia ematen du, baita gauzak sentitzeko eta ikusteko modua ere.

Zuk esandakoa da espainolez gozoago irakurtzen duzula. Zer dela-eta?
Bai, hala da, baina nik hori esanari inportantzia gehiegi eman zaio. Etxeko heziketa euskaraz jaso dut, ikasketak euskaraz egin ditut ahal izan dudan neurrian eta euskaraz egin dut lan. Hala ere, errazagoa egiten zait espainolez irakurtzea. Hori garaiaren ondorioa da.

Idatzi, aldiz, euskaraz erosoago, ezta?
Bai, baina espainolez idaztea ere gustatzen zait. Batez ere kazetaritza literarioa denean. Eduardo Arrillagak argazki katalogo bat eskatu zidan eta hori gazteleraz idazten gozatu ederra hartu nuen.

